

“Ametsa zen Athleticekin

Joseba Etxeberria

Athletic Clubeko kapitaina



Athletic Clubetik jokalaririk eredu garririk bat nabarmendu beharko balitz, hau, dudarik gabe, Joseba Etxeberria izango litzateke. Duela 14 urte etorri zen Bilbora mutil kozkor bat izanik, baina denbora gutxi behar izan zuen Lezama guztia maitemintzeko. Aurrelari fin honek aukera ezin hobea du bere erakusleioako titulu garrantzitsuena eskuratzeko: Athleticcek hain gustuko duen Kopa.

Athletic Club.- Athletic Club finalerako sailkatu da. Nola definituko zenuke gertakizun hau hitz batean?

Joseba Etxeberria.- Historikoa. Hogeita lau urte pasatu dira azkeneko finala jokatu zenetik eta guretzako denbora gehiegi da finalik jokatu gabe.

Oso garrantzitsua da honelako aukera bat izatea titulu bat irabazteko, batez ere gazteengatik. Daramagun filosofiak noizean behin fruituak ematen dituela frogatzen du honek.

AC.- Urte hasieran ba al zenuten helburutzat kopako finalera iristea?

JE.- Hasieran ez dakizu ongi noraino iritsi zaitezkeen, baina esan dalteke, helburuetako bat zela. Beste urte batzuetan ez bezala, taldeak lehen partidatik garrantzi berezia eman dio txapelketa honi, eta hori nabaritu da. Egin dugun bidea bikaina izan da hasieratik.

AC.- Zer iruditzen zaizu Mestalla?

JE.- Egia esan behar baldin badut nahiago nuke Madrilan jokatu, ez

nigatik, baizik eta zaleengatik. Zelaia handiagoa da eta erreztasun gehiago daude bertara iristeko. Azkenean badi-rudi ezin izan dela aldatu eta Valentzian jokatu dela, baina beno, zelaia polita dela deritzot eta ziur nago giro ezin hobea egongo dela.

AC.- Lagunen arteko porra bat egin beharko bazenu, zein emaitza jarriko zenuke?

JE.- 2-0. Nahiz eta Bartzelona talde bikaina izan, nik uste dut gure aukerak izango ditugula partida aurrera ateratzeko.

AC.- Hitz egin dezagun pixka bat finalerako aurkariak. Bartzelonak eta Athleticcek Kopa kopuru bera dute, eta

Kopakoko finala jokatzeari

beraz, irabaztekoan, haien gainetik jarriko ginatke. Final berezia izango da, dudarik gabe. Zer suposatzen du zuretzat Bartzelonaren gainetik egoteak?

JE.- Gauza asko pasatu zaizkit burutik. Irabaztea, Kopako erregeak izatea suposatuko luke. Ez dakizu honelako final bat noiz errepikatuko den, bai gure aldetik zein bere aldetik ere, eta urte dexente egon gaitezke lehen postuan. Horrelako gauzak beti dira albiste onak Athleticendako.

AC.- Ba al dago ezinbesteko jokalaririk Bartzelonan?

JE.- Bi jokalarik mota bereiztu beharko genituzkeela talde honetan: alde batetik, Xavi eta Iniesta, eta bestetik, aurrelariak. Lehenengo bi hauek ezinbestekoak dira Bartzelonan duen jokatzeko eran, baina aurrelariak partida bat jokaldi batean irabazi dezakete. Oso talde ona da begiratzen den tokitik begiratzen dela.

AC.- Zer iruditzen zaizu duten jokatzeko era?

JE.- Jokatzeko daramadan urte guztietan ez dut horrelakorik sekula ikusi. Egia esan, nire futbola ulertzeko eran, ez dago jokatzeko era hoberik. Hasieran izan zituzten gol festa hoiak eta ikuskizun hori, zaila da inoiz ikusten.

AC.- Hitz egin dezagun zuri buruz apur bat. Zure lehenengo final garrantzitsua izango da Athleticekin, eta gainera kapitain bezala. Bazen garaia, ezta?

JE.- Bai. Finalerdi ostean gazteekin egon nintzen komentatzen finalera pasatu izana, eta esan nien nahiz eta hasieran erraza dirudien finalera iristea, oso zaila dela. Hamalau urte daramatzat talde honetan, eta zuk esan bezala, nire lehen finala da. Benetan zaila da horrelako zerbait lortzea.

AC.- Zer suposatzen du final honen partaideak izateak? Ametsa al zen edo egia bihurtu litzatekeen zerbait?

JE.- Bilbora iritsi bezain laster nabaritu nuen txapelketa honek zaleengan duen garrantzia. Lehenik eta behin ametsa zen niretzat final bat jokatzeari, eta honaino iritsita, kapitain bezala Kopa altxatzea ametsa baino gehiago litzateke niretzat.

AC.- Finalerdi irabazi zenutenean zaletu askok zuri eskaini zizuten finale-ra pasatu izana, zer deritzozu?

JE.- Bai (barreak). Hurrengo egunean jende asko hurbildu zitzaidan zoriontzera, eta merezi nuela esatera. Oso eskerturik nago alde horretatik, sari bat dela esan daiteke Athleticen jokatu ditudan partida guztiengatik.

AC.- Lezaman futbolari gazte asko daude, zer iruditzen zaizu haien maila?

JE.- Oso ona. Nire ustez, gazteak asko zaindu behar dira eta batez ere Athletic bezalako talde batean. Hauek dira talde honen etorkizuna. Oso lan ona da Lezaman egiten dutena.■



■ "Esto, para mí, es más que un sueño" ■

Joseba Etxeberria es un jugador ejemplar. Desde su llegada a Bilbao con 17 años recién cumplidos ha maravillado a la parroquia rojiblanca. Desde que viste estos colores no ha logrado ganar un título importante, y está deseoso de hacerlo. Para ello tiene una oportunidad inigualable: la final de Copa. Haberse clasificado para disputarla es un sueño hecho realidad para el capitán, y ganarla sería algo más que eso, sería realizar la ilusión de su vida. En cuanto al Barcelona se refiere, opina que "nadie juega mejor que ellos a fútbol. No sólo dependen del tridente de ataque, sino que tienen jugadores igual de importantes como son Xavi e Iniesta". Califica el hecho de haber llegado a la final como "histórico".